

# Gizarte-sareek SEO-arengan izan duten eragina.

Eider Fernández  
Overalia  
eider@overalia.com



GIZARTE-SAREAK

Azken urteetan gizarte-sareek jasan duten hazkundeak eragin zuzena izan du bilatzaileen emaitzetan, baita SEOarengan ere. Sarean garatzen den edozein proiektuk eta honen difusiorako hartu beharreko erabakiek gizarte-sareak eduki behar dituzte kontutan. Hori dela eta eragin hau zertan oinarritzen den aztertuko dugu ondorengo ataletan.

## **Bilatzaileetako emaitzak**

Azken urtetan, gizarte-sareen sarrerarekin, bilatzaileetako emaitzak asko aldatu dira. Orain arte ohitura ziren edukiek (albisteak, eduki korporatiboak, blogak..) beste eduki mota bati egin diete harrera. Orain, Twitterren esandakoa edota Youtubera igotako bideoak ere bilatzaileetako emaitzetan agertzen dira. Bilatzaileak ere ari dira beraien algoritmoak aldatzen bilaketa sozialagoak erakusteko.

## **Ikusgaitasunerako tresna**

Gizarte-sareak ikusgaitasuna lortzeko tresna interesgarria bihurtu dira. Gaur egun enpresa/marka/pertsona batek Interneten bere erabiltzaile objektiboa dagoen lekuan egon nahi badu, gizarte-sareetan egon behar du, bertan baitaude erabiltzaileak. Horri, aurreko puntuan aipatutako bilatzaileen emaitzek irabazi duten presentzia ezinbesteko tresna bihurtzen ari da.

## **Gizarte-sareak vs. bilatzaileak**

Non ari dira erabiltzaileak benetako informazioa bilatzen? Lekua kendu diete gizarte-sareek bilatzaileei informazio iturri nagusi izan diren horretan? Gauza bera espero dugu gizarte-sareengandik edota bilatzaileengandik?

## **Trafiko kalitatea**

Sarean dugun proiekturako trafikoa bilatzen ari bagara, zeinek bideratzen digu trafiko hobea? Bilatzaile baterako egindako SEO-ak ala gizarte-sareek? Hainbat azterketek diote bilatzaile batek bidaltzen duen trafikoa kalitate hobea duela, edozein gizarte-sarea baino trafiko eraginkorragoa bideratuz.

## **Gizarte-sareak ospearean kudeaketa-tresna gisa**

Lehen aipatutako ikusgaitasuna dela eta orain, informazioa bilatzeaz eta emateaz gain, gure (markaren, izenaren, enpresaren, proiektuaren) ospearean egoera neurtzeko eta jarraitzeko tresna ere badira. Ospea kudeatzeko tresna bereziak badaude, baina tresna hauek gizarte-sareak miatzen ez badituzte, ez dira guztiz baliagarriak izango.